

# BERRIGARA

50. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, urriak 11

Erreportaia

**Etxeko  
animaliak**

**Moda  
desfilea**

**Udazken-neguko  
lantziak ikusgai**

**Zapatuan  
Elosun**

# Ganadu feria

## Autopulmans Araba S.L.

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

**AUTOBUSAK**

Telefonoa: 76 55 70

**Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza,  
bodega, ikasketa bidai, despedida, lantegi, eskola...**

**FSKA F7A711 AURREKONTUA!!**







# BOLU

Aranerreaka 9 behea ☎ 76 51 20

## GIMNASIOA

# Zatoz eta ezagutu gure INSTALAZIOAK



HARRERA



BAINUONTZIA, SAUNA,  
HIDROMASAJEA



KARATE-KYOKUSHINKAI (2. DAMeko bi irakasle)



AEROBIKA, MANTENIMENDU GIMNASIA




MUSKULAZIOA,  
KULTURISMOA



SQUASH-A



STEP 2.500



BIZIKLETA




CLIMBER  
2.000



ESKI



RUNNER 2.000



ARRAUNA

**BOLU GIMNASIOAn gela berri bat egokitu dugu merkatuko gimnasia makinarik berrienekin!!**

*Monitore  
kualifikatuak  
ditugu iharduera  
guztietarako*

■ ORDUTEGIA

- Astegunetan: 07:00-22:00 jarraian.
- Zapatutan: 09:30-14:00.

■ KUOTAK (zerbitzu guztiak barne):

- Helduak:
  - Hilaro: 5.950 pta.
  - Urtekoa: 49.500 pta.
- Haurrak:
  - Hilaro: 3.950 pta.
  - Urtekoa: 36.500 pta.



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA

20570 Bergara

☎ 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkarte.

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate

**Erredakzioa:**Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezibar  
Jone Larrañaga**Maketazioa:**

Eneko Azkarate

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Gorka Elortza

**Testuen zuzenketak:**Estepan Plazaola  
Maripi Laskurain  
Alex Labaien**Erredakzio kontseilua:**Gorka Elortza  
Miguel Angel Elkoroberezibar  
Alex Labaien**Komikiak:**Bittor Rodriguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Alex Ugalde  
Unai Azkarate**Banaketa:**

Txantxangorri taldea

**Tirada:**

4.200 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

SS 50/91

**ISSN:**

1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## VALEN MOÑUX

**Estanpako eszena zuzendaria**

- Noiz hasiko dira San Martinen estanpetako entsaiuak ?

- Urriaren 27an hasiko gara entsaiuekin Mariaren Lagundian. Gonbidatutako talde guztiek baietza eman dute: Alai-Taldea, Aritzeta, Beart, tanborradako taldeak, Gimnasia Erritmikoa, Musika Banda, Orkesta, Kukuma, Musika Eskolako haurrak (ume asko izango dira parte hartzen), Oihulari Klown, Virago, Pol-Pol Argazki Taldea, Orfeoia, Umore Ona otxotea, Txistulari Banda eta Xamatzek hartuko dute parte eta Edu M u r u a m e n d i a r a z dantzariaren kolaborazio berezia izango dugu. Alfredo izango da musika zuzendaria, euskarazko dialogoak Maite Aristegik landu ditu eta neu eszena zuzendaria izango naiz.



- Talde horietan sartuta ez daudenek parte hartzeko aukera dute?

- Bai, beste askoren partaidetza behar beharrezkoa izango baita: modistak, makilladoreak..., eta beste asko. Azpiegitura izugarria behar da eta hain zuzen ere "Bergarako berriak aurkezten du San Martinen estampa" lema aukeratu dugu otsaileko ikuskizunerako.

**"Gonbidatutako talde guztiek hartuko dute parte San Martinen estanpen ikuskizunean"**

## I T U R R I O N E T I K

**Galeperren haztegiko pabiloiak subastara aterako dira**

Bergarako galeperren haztegiko pabiloiak subasta publikora aterako dira datorren urriaren 30ean.

Gogoratuko duzue, Bergarako Criadero Vascongado de Codornices enpresak ekaina aldera itxi zuen San Juaneko lantegia. Haztegiak ez zituen osasun zein segurtasun neurriak betetzen eta lantegia Murgiara eraman zen. Gizarte Segurantzarekin egindako zorra medio, urriaren 30ean, Eibarren, subasta publikora aterako dira San Juaneko pabiloiak. Bestalde, Udalak pabiloien egoera sanitarioari buruzko txostena agindu du azken urteotako euli plaga kontutan izanik.

E S A N  
D U T E

"Lokalak [Jam aretoa] baldintza ezinhobeak biltzen ditu hutsetik eraikita izan delako. Diseinu perfektua eta era guztietako detaileak dauzka: 1.500 lagun ingururentzako aretoa, kurba forma duen goiko solairua, taberna eta guzti; eskenatoki egokia eta insonorizazio perfektua, lur azpiko kableatua, sarrera eta irteera autonomoak publikoarentzako eta artistentzako, bisibiltate ona eta abar."

**IÑAKI ZARATA**  
Kazetaria  
EL DIARIO VASCO

"Nik behintzat aspalditik neukan buruan areto honen ideia. Txibistoren esperientzia; Soñuaren bultzada... ordua zen leporaino sartzeko".

**FERNANDO ETXABARRI**  
Jam-eko jabeetako bat  
EL DIARIO VASCO



**INDEPENDENCE DAY**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 16:45, 19:30, 22:30.

Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

Martitzena: 19:30.

Eguastena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**LAGO NESS**

Domeka: 11:30.

**LA MUJER DEL PUERTO**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

**Zinea**

▼▼ **Ronald Emerichek** zuzendutako filme honek izugarritzko arrakasta izango du takiletan. Extraterrestreei heldu dira eta mundu zabalean eraso bati ekin diote. Extraterrestreei aurre egiteko talde bat osatuko da eta hori izango da mundua salbatzeko itzaropen bakarra. **Will Smith** (*El principe de Bel Air*), **Jeff Goldblum** (*Parque Jurásico*) edo **Mary Mc Donnell** (*Bailando con lobos*) erreperto buruan.

▼▼ **Ted Danson** aktoreak (*Cheers* telesaila) protagonizatutako filme honetan Eskoziako Ness Lakuko misterioa aztertzen da. Badirudi Nessie ezagunak azkenaldian bere burua azaldu duela, eta ikerlari talde bat bera ezagutzeko ahaleginetan arituko da...

▼▼ **Arturo Ripstein** zuzendari mexikarraren (*Principio y fin, La reina de la noche, Profundo carmesí*) filme honetan *Perlaren* istorioa kontatzen zaigu. *El Marro* izeneko itsasgizon bat *Perlarekin* maiteminduko da baina *Tomasa*, *Perlaren* ama, jarriko zaio tartean. **Patricia Reyes Spindola**, **Damian Alcazar** edo **Alejandro Paradi** aktoreekin.

**Deiak**

▼ **AEK eguna.** Urriaren 20an Donapaleun ospatuko den AEK egunera joateko autobus txartelak AEK Akulu Euskaltegian urriaren 17a baino lehen.

▼ **Mendi irteera** Trutzio-Muskizera urriaren 20an. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **1926an jaiotakoan** bazkaria Antxoni jatetxean urriaren 20an. Izen-ematea 76 46 65 (Floren) eta 76 35 18 (Maria Pilar) telefonoetan.

▼ **1931n jaiotakoan** anaiarteko eguna urriaren 19an. Meza arratsaldeko 8etan Santa Marinaran eta ondoren afaria Antxonin. Izen-ematea Antxoni tabernan.

▼ **Santi Arrietaren** eskulturak Kultur Etxean urriaren 20ra arte.

**Ogia**

▼ **Igandea 13:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 11:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 12:** Estella.
- ▼ **Domeka 13:** Estella.
- ▼ **Astelehena 14:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 15:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 16:** Puy/Español.
- ▼ **Eguena 17:** Guallar/Corcuera.

**egizabal**

BERGARA  
☎ 76 12 28

**oinetakoak eta poltsak**

ARRASATE  
☎ 79 66 01



# Udazken-neguko moda

## Moda desfilea Jam aretoan Bedelkarren eskutik

**Bedelkarrek antolatutako moda desfilea izango da bihar, larunbata, arratsaldeko 7etan Jam aretoan. Ikusleek, 14 dendaren eskutik, 1996-97 denboraldiko udazken neguko moda berria eza-gutzeko aukera izango dute. Beatriz Agirrek (Agirre jantzidenda) eta Antonia Cansecok (Zatoia) desfilearen gora-beherak azaldu dizkigute.**

**- Zelan sortu zen moda desfilea egiteko ideia?**

- Moda desfile honen antolaketarekin herriko bizitza komertzialari bultzadaxo bat eman nahi diogu. Azken batean, besteak beste, honelako jarduerak antolatzeko ideiarekin sortu zen Bedelkar eta harakinek San Martinetan txekorketa egin zuten moduan, guri desfilea egitea bururatu zitzaigun. Bestalde, lehen ere egiten ziren honelako desfileak (azkena 90ean izan zen) eta uste dugu ideia hori berreskuratzea polita izan daitekeela.

**- Zeintzuk izango dira desfilean parte hartuko duten dendak?**

- Guztira 14 komertzio hartuko dute parte: Agirre, Aisor Kirolak, Cristina-Bergara Piel, Igarza, Ikusbi, Janden, Jauja Kirolak, Laket, Nerea, Optica Manso, Siaska, Subijai, Xamartin Kirolak eta Zatoia dendetako jantziak ikusi ahal izango dira.

**- Nolako jantziak ikus ahal izango dira?**



Antonia Canseco eta Beatriz Agirre, moda desfilea antolatu duten Bedelkarreko dendetako ordezkariak.

- Lentzeria, kirol jantziak, haurren jantziak, helduenak eta betaurrekoak izango dira ikusgai bihar-ko desfilean. Udazken-neguko tendentziak ikusi ahal izango dira eta modari dagokionean behintzat, gure komertzioetan behar guztiak ase daitezkeela frogatzen ahaleginduko gara. Azken batean bertan erosteko gonbidapena luzatu nahi diegu herritar guztiei.

**- Zer izan da nekezena desfilea antolatzeko orduan?**

- Nekezena parte hartuko duen jendea biltzea, entsaiuak antolatu edo lanerako prest zegoen jendea

lortzea izan da. Zentzu horretan kolaboratu duen jendeari gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu: Maritxu Murua-mendiaraz (ileapaindegi arloan), Giartzu gimnasioa (koordinatze eta ko-reografia lanetan), Jam aretoa (lokala uzteagatik), Gerardo Puente kazetaria (desfileko aurkezlea izango da) edo desfilean ikusiko den murala egin duten Oihana Garitano eta Juan Manuel Bote gazteak. Eta noski, taula gainean izango diren modeloak.

**- Nola aukeratu dira modeloak? Zenbat izango dira?**

- Giartzu gimnasioak

eraman du gai hori eta guztira 70 bat modelok hartuko dute parte. 30 haur izango dira eta gaitzetzekoak adin guztietakoak dira.

**- Sarrerak non esku-  
ra daitezke?**

- Ariznoan, Etxagin, Irrintzin eta Kortazarren jarriko dira salgai 300 pezetaren truke eta esan behar da, sarrerarekin batera, zozketa bat egingo dela desfilean. Irabazleak desfilean parte hartzen duten dendatan 30.000 pezeta gastatzeko bonoa jasoko du. Ilusio handia daukagu desfilearekin eta aretoa toperaino ikustea gustatuko litzaiguke.

**“Zapatuko moda desfilearekin herriko bizitza komertzialari bultzadaxoa eman nahi diogu; herrian erosteko gonbitea egin nahi diegu herritarrei”**



## Presoak Herrira! Elkartasuna!!

Dispertsioa, erasoak, lekualdaketa bat bestearen atzetik, isolamendu arbi-trarioak, eguneroko mehatxuak, herio-tzarenak barne, babes eza juridikoa e.a. Gure preso politikoak jasaten ari diren errepresioaren adierazpenetako batzuk dira, eta hauen aurrean Euskal Langile Klasea ezin daiteke mutu geratu.

Behin eta berriz, "bere" legeriaren aurka doaz, legeria hori aplikatuta egun kartzeletan dauden ehun bat euskal preso politiko aske egon beharko bailukete, bai gaisotasun sendaezinak izate-agatik, bai zigorraren 3/4ak beteta edukitzeagatik. Bestetik, legeak ezartzen duenari jarraiki, zigorra norberak bere jaioterrian bete beharko luke, kartzelan dagoenak familia eta gizarte-ingurunearekiko harremana galtzea ekiditeko. Hauek denak, legearen aurkako neurri errepresiboak ditugu, hainbat erakunde ofizial nahiz nazioartekoak aitortu duten moduan.

Dispertsioa, presoak lehenagotik ere legeak ezarritako zigorrari legez kanpoko den beste zigor bat eranstea da, eta honen bidez presoaren familia eta lagunak ere zigortuak izaten dira (inola-ko zigorrik bete beharrik ez badute ere), ehundaka edota milaka kilometro ibili beharrean egoten baitira asteroko bisita

laburrak burutu ahal izateko, zenbaite-tan heriotza ere ekarri izan duten trafiko istripuen arriskua gehituz.

Hau horrela, guk LABkook zer egin?

Ba presoenginguruko erakundeek antolatutako ekintzei gure laguntza eskaintzeaz aparte, guri dagokigun lekuan, lan munduan, egoera horien aurka egoera honi lehen bait lehen amaiera eskatuz langileria osoak parte hartu ahalko duen enpresetan itxialdiak bultzatuko ditugu urriaren 18tik 20ra bitartean; eta enpresetan egin ezinean beste alternatiba batzuk topatzen ahaleginduko gara, gure asmoen berri datorren astean izango duzuelarik.

Garrantzitsua da itxialdi honek langile orori irekiak izatea, langile orok, koloreaz gaindi, egoera injustu honi aurka egitea, jende oro afektatzen baitu egoera honek; eta era berean, eskakizun hau gizarteko gehiengo nabarmen baten exigentzia bihurtu delako.

LENITZ ESKUALDEKO LAB

## Aupa!

Pol-Pol, Nahikari eta Infer tabernak, Jam aretoa..., badirudi, azkenaldian, Bergarako gau-giroa mugitzen hasi dela eta orain dela urte batzuetako giroa berreskuratu nahi dela. Azken urte haue-tan, eta Txibisto diskoteka itxi zutenetik batez ere, Bergara hilda egon da. Bertakoak ez ziren asteburutan gauetz kalera irtetzen, eta kanpotik ere ez zen inor etortzen. Oñati, Durango edo Urretxu al-dera joatea nahiago zuen jendeak.


Udalak edo beste erakunde batzuk ezer gutxi antolatzen zuten, tabernari-ek beste hainbeste, frontoian ezin zen jaial-dirik antolatu -gaur egun ere oztopo ugari izaten da hortarako-.

Baina badirudi tunel beltz horretatik irtetzen ari garela eta azkenean argia ikusten hasi garela. Lerro hauen bitartez Pol-Pol, Nahikari eta Infernukua taberna-ko eta Jam aretoko jabeak zoriondu, es-kerrek eman eta hartu duten bidetik se-gitzeko animatu nahi nituzke. Musika, antzerki edota pintura jarduerak bultzatzen badituzte, eta jendea erakartzeko ekimenak bultzatzen badituzte ostiral eta larunbateko gauak lehengoak modu-koak izango dira. Eta instituzioei esan nahi nieke, horrelakoak bultzatzen ez badituzte, torpedeatu ere ez dezatela egin.

I. ETXEBERRIA

## Tiira biraka

ALEX UGALDE





**Gose greban**

Euskal presoek Euskal Herriratzea, giza eskubideen errespetoa, preso politikoen estatutuaren aitortpena edo preso gaixoen kaleratzea aldarrikatzeko presoak egiten ari diren gose grebaren barruan, J. R. Aiastui "Txerra" eta Iñaki Arietaleaniz "Bizkai" preso bergararrak gose greban dira urriaren 1etik.

**Jarduneko ikastaroak**

Jardun elkarteak BBB eta REMeko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ditu. Narrua, antzerkia, irratia, dantza eta beste ikastaro asko izango dira aukeratzeko. Klaseak urriaren 22tik maiatz bukaera bitartean emango dira Kartzela Zaharrean, astearte eta ostiraletan 18:30etatik 19:30etara. Izena ematea epea urriaren 17a baino lehen Kartzelan.

**HILDAKOAK**

**Nikolasa Gantxegi Urisabel**  
Urriak 4, 87 urte.

**Jesus Elkorobereziabar Maiztegi**  
Urriak 6, 80 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Julen Larrañaga Llamas**  
Urriak 6.

**Joseba Elorza Garitano**  
Urriak 6.



Merkatuari buruzko ikerketa egiten ari den CKL enpresakoek eta postuetako jabeek bilera egingo dute.

**Azoka plaza bultzatzeko bilduko dira saltzaileak**

Oxirondoko Merkaturari buruzko azterketa egiten ari den CKL enpresako ordezkariak eta postuetako jabeak datorren asteazken arratsaldean bilduko dira, merkaturia bultzatzeko ideiak aztertzeke asmoz. CKL enpresak azokaren lehen diagnostikoa egin du eta orain, merkatarien laguntzaz, azoka dinamizatu, bizitu eta postuz betetzeko proposamenak landuko dira. CKL enpresako ordezkariak eta merkaturako komertziantek astean behin biltzeko asmoa du-

te eta hemendik hilabete batera egin beharreko jarduerak zehaztuta izango direla espero da.

Donostiako CKL enpresak iraileko bigarren astean merkaturaren azterketari ekin zion. Udala kezkatuta azaldu izan da azkenaldian azokaren etorkizunaz eta merkaturia bultzatzeko jardueri buruzko azterketa agindu zion CKLri. Enpresa honek antzerako azterketak egin izan ditu aurretik Gipuzkoako hainbat azokatan. CKLko langileek Bergarako azokaren defizita,

erabilera edo edifizioaren estruktura bera aztertu izan dute eta orain horri soluzioa topatzea izango da CKL eta azokako merkatarien zeregina. Helburu nagusia Oxirondoko azoka superfizie haundiekin edo hiperrekin garrantia osoz konpertzeko gertatzea litzateke. Horretarako Udalak azoka dinamizatu eta bizitzeko proposamenak aztertu eta zer nolako jarduerak bultzatu erabaki beharko du. Badirudi merkaturaren jostioa enpresa baten esku uzteko asmoa dagoela.



**ETXEPARE-BILINTX**

**LIBURUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



### Txakurren gaineko bandoa


Txakurra duten guztiei kakak kale eta gunee publikoetan ez lagatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzera behartuta daudela gogorarazten zaie. Era berean, txakurra lotu gabe eramatea debekatuta dagoela eta txakurrak *chip* identifikatzailea eraman behar duela gogoratzen da.

### Iparraldeko gidak

Datorren astebukaeran Iparralden ospatuko den AEK eguna dela eta, bertako kanpin eta hotelen informazioa jaso daiteke herri barruko tabernetan eta AEK Akulu Euskaltegian, Masterrekan.

### Mendi ganadu feria Elosun

Zapatuan, urriaren 12an, Elosuko mendiko ganadu feria ospatuko da. Goizeko 9etan feria hasiko da, sari banaketa 13:30etan izango da eta ondoren Lazkano eta Gorrotxategi bertsolarien saioa izango da. Arratsaldean, 5etan, zaldiaren eta mandoaren arteko dema jokatu da: Elosuko Benta-Osteren zaldia eta Aizarnazabalgo Etxaberen mandoa 850 kiloko harriarekin arituko dira. Egunean zehar Laja eta Landakanda trikitilariak izango dira.



Musika Eskolako etxea egoera kaskarrean aurkitzen da.

## Astelehenetik aurrera obrak Musika Eskolako egoitzan

*Komunak berriztuko dira eta galdara berria jarriko da*

Datorren astean Musika Eskolan egin beharreko hainbat berritze lan jarriko dira martxan. Beheko solairuan dauden bainugelak berriztu eta galdara berria jarriko da Musika Eskolako edifikazioan datozen hilabeteetan. Komunak oso egoera txarrean daude eta Musika Eskolako zuzendaritzak ezinbestekotzat jo zuen berriztea. Komun berriak oraingoan tokian kokatu dira baina banaketa desberdina izango dute. Bestalde, komunekin amaitu ondoren, lizentzia eskatu da gas bidezko galdara berria jarri ahal izateko. Musika Eskolak orain arte Mariaren Lagundiko konbentuan dagoen galdara erabili izan du baina hemendik aurrera bi edifikazioak bereiztu nahi dira. Horretarako Mu-

sika Eskolak bere galdara propioa izango du Espoloiko gas konduktzioa aprobetxatuz. Galdara berria komunen ondoan kokatu da eta urtarrilerako martxan egotea espero da.

Aipatutako lanak Arrasateko Construcciones Canas enpresak burutuko ditu datorren astetik abendura bitartean. Berrizte lanek 11 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute eta Udala eta Musika Eskolaren artean ordainduko dira. Otsailean egingo den *San Martinen estanpak* izenburuko ikuskizunean biltzen den dirua obrak ordaintzeko bideratuko da. Musika Eskolako edifikazioa nahiko zahartuta geratu omen da eta etorkizunean beste hainbat konponketa egin nahi dira.

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA



**gizon emakume**

Barrenkale, 35 BERGARA



# Hirugarren mundurako 3 milioi t'erdi banatuko ditu Udalak

*El Salvadorra eta Nikaraguara diru gehiena*

Bergarako Udalak urtero hirugarren mundura bideratzen duen dirulaguntza, nagusiki, El Salvador eta Nikaraguara bidaliko da aurten. Ongizate Zerbitzuaren proposamenari jarraituz, Gobernu Batzordeak El Salvadorreko Oskar Romero eta FISC (Fundacion Internacional de Solidaridad) gobernuz kanpoko erakundeei (GKE-ONG) 3.150.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuen. El Salvadorren, Capulin herrian, edateko ura jasotzeko egingo den kanalizazio proiekturako 1.816.000 pezeta bideratuko dira eta Nikaraguan, berriz, jantoki bat egiteko proiektuak 1.334.000 pezeta jasoko ditu. Nikaraguarako dirulaguntza azken bi urteetan Udalaren laguntza jaso duen FISC era-

kundearen bitartez bidaliko da. Gogoratuko duzueenez, Granada hirian Guapinol auzoan Etxe Komunitarioa egin zen Udalaren laguntzaz.

Guztira 12 eskakizun jaso ziren aurtengo dirulaguntzak jasotzeko. Aukeraketa Batzordeak, besteak beste, proiektuen biabilitatea, jatorrizko biztanleen partizipazioa edo komunitate horietako erakundeen garapena izan ditu kontutan dirulaguntzak banatzerakoan. Udalak beste 350.000 pezeta emango ditu beste bi elkartek proposatutako sentsibilizazio kanpainetarako. Komite Internazionalistak eta Mugen Gaietik elkarteek 262.000 eta 87.000 pezeta jasoko dituzte euren lan esparruetan sentsibilizazio kanpainak bultzatzeko.



## Euskalanen aurkezpena

Asteazkenean 200 bat lagun bildu ziren Euskalaneko batzar sortzailean, Arrasateko Amaia antzokian. Euskalan proiektuaren helburua enpresa munduan euskararen presentzia areagotzea da. Deba Garaiko 20 enpresa sartuta daude eta Euskalan Euskal Herri osora zabaldu nahi da.

## Kontzertua Pol-Polen

Igandean eguerdiko ordubatean Malcolm Scarpa eta Naco Goñiren kontzertua izango da Pol-Polen.

## Arantxen erromesaldia

Euskal Herriko Arantxa izeneko emakume guztiekin erromesaldia egingo da Arantzazura urriaren 19an. Bergaratik autobusa 8:30etan pasako da. Arantzazura oinez igo ondoren, 12etan Meza Nagusia izango da eta ordubietan bazkaria. Izen-ematea (3.500 pezeta), Euskadiko Kutxan. Argibideak 78 13 04 telefonoan.

## Garagardo festa

Datorren astean, eguenetik domekara arte, *Garagardo festa* iragarri da Infernukua tabernan.

## Las Brujas Nahikarin

Las Brujas taldearen emanaldia izango da ostiralean, hilak 18, gaueko 10etan Nahikari tabernan.



3. mundurako ematen den dirulaguntza oraindik ez da % 0,7ra heltzen. ARTXIBOA.

**Deco-Textil**

**ZANGITU**

Etixerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

**MAHER**

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**


Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



# ALTZARI

## FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

concepto



FAGOR

Sukaldeko altzariak



Sukalde berriak prezio ezinobeagotan!!



## Natura

# Mikologiarako garaia

**- Mikologiak onddoak ikasten ditu. Nola bizi dira onddoak?**

- Sarritan landare bezala tratatzen diren arren, oso desberdinak dira landareak eta onddoak. Hauetan ez dago inoiz klorofilarik eta horregatik, elikatzeke beste bizidunez aprobetxatu behar dira: igartutako egurra, orbela eta humusa jan dezakete eta baita bizirik dauden animalia eta landareak espezie parasito gutxi batzuen kasuan.

**- Nolako garrantzia daukate ekosisteman?**

- Oso garrantzitsuak dira. Kontutan izan onddoak direla hildako materia gehiena jan, dijeritu eta honela erreziklatzen dutenak. Lurraren aberastasuna mantentzeko nahitaezkoak dira, beti esaten da onddoak naturaren zaborraz arduratzen direla. Garrantzi hortaz errezago ohartzeko garai egokia da udazkena, basoetan batez ere, bestela ikusten ez ditugun espezie ugari orain nabari egiten direlako.

**- Onddo arriskutsuak ere badira...**

- Bai, espezia gutxi batzu oso toxikoak izan daitezke guretzat, baina jaten ditugunean soilik. Bestalde, basoetan eta batzuetan gizakion osasunean ere kalteak sortzeko gai direla aipatzen da erraz, baina mundu zabalari dagokion bezala, gehiago dira mesedeak kalteak baino. Gogoratu behar da onddoak, arlo as-



**IÑAKI IRIZAR**  
(Mendia Bizirik)

kotarako gai bezala erabiltzen direla aspalditik. Diokorides-en idatzietan jadanik (200 urte K.A) aipatzen dira onddo batzuk medikuntzan erabiltzen zirela; medikuntzan ere onddoetatik ateratako antibiotikoak iraultza bat

izan dira; elikagai modura duten garrantziaz, zer esan; industrian ere erabiltzen dira espezie mordo bat: zurgintzan, egur batzuei kolore bereziak emateko; ardoa, gazta edota ogia egiteko ere legamiak edo lebadurak behar ditugu (hauek ere onddoak dira); azkenik, kultura batzuetan onddo batzuen ahalmen aluzinogenoa ere oso garrantzitsua da.

**- Espezie babesturik badago?**

- Oraingo ez, baina beharrezkoa ikusiko balitz, onddoen bilketa arautzeko aukera jasotzen dute naturaren babesarako legeek. Horren talde interesgarria izanik (ekosistemen funtzionamendurako, farmakologia eta medikuntzaren etorkizunerako, elikagai moduan erabiltzen dutenentzako...), zaindu beharreko errekurtoa dira onddoak ere. Oraingo ez, onddoak errespetatzeko aholkuak ematen dira: jatekoa ez bada ere, bakean utzi perretxikoa; gogoratu toxikoenak jatekoaren garrantzi berbera izan dezakeela beste arlo batzuetan; perretxikotara joatekotan ahaztu gehiegikeriak eta poltsakadak, basoa gibelurdinez beteta aurkitu arren... Mikologia eta perretxikozaleen munduan ere printzipio asko aldatzen ari da.

## “Onddoak nahitaezkoak dira lurraren aberastasuna mantendu ahal izateko”



Jatekoa ez bada, perretxikoa bakean uztea gomendatzen da.

# AR DATZA

## Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

# ETXAGI

## JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



## Zapatua 12

**18:00: MODA DESFILEA**

Udazken-neguko modaren aurkezpena Bedelkarren eskutik.

**23:00: DANTZALDIA HELDUENTZAT**

OROPENDOLA ORKESTAK eta BENJIK ["Ponte las pilas" telesaioko aurkezlea] eta Madrileko Dj. IVANek animatuta.

**03:00:**

**DISKOTEKA**

D.j. IVAN eta gonbidatuek animatuta.



## Domeka 13

**17:00: LIGHT DISKOTEKA**

Gazte eta gaztetxo guztientzat. Alkoholik bareko diskoteka saioa. BENJIK ["Ponte las pilas" telesaioko aurkezlea] eta Madrileko D.j. IVANek animatuta. Zatoz domeka arratsaldean JAM aretora. Sekulako martxa!!

Eta GAUR, eguakitza, 23:00etan BOMBAY GIN festa. Zatoz!! Primerako giroa izango da eta OPARI EDER BAT jasoko duzu.

**Haurdun bazaude  
LAURA da zure  
jantzidenda.**

**Udazkeneko moda  
gaztea jazteko neurria  
ez da izango arazoa.**

**Tailaje zabalena dugu.**

# Laura



Erdiko kale, 30  
Tfnoa: 79 05 80  
ARRASATE



# Abereak etxean

## Animali barik ezin bizi

**Lehen txakurrak eta katuak bakarrik baserrietan egoten ziren. Orain kale-etxeetako biztanle ere badira. Kale-etxean egoten badira, ez dira bakarrik egoten; normalean, arrain, txori, hamster edo beste abereen bat lagun izaten dute.**

**S**aso batean jendea txakurrarekin kalean paseatzen ikustea bitxi samarra bazen ere, gaur egun pasaiaren ohiko osagai da. Abereak aske eta euren ingurunean bizitzeko direla esan arren, gero eta gehiago dira abereak pisu batean dituztenak. Gezurra badirudi ere, jendeak inoiz baino gehiago maite ditu animaliak, baina abandonatu ere inoiz baino gehiago egiten dira. Ondorioz, animalien eskubideen alde defentsan ari diren elkarteak ugaldtu egin dira.

### Manolo, Bergarako lora

Mari Tere Gorosperi animaliak ikaragarri gustatzen zaizkio, eta etxean txakurra, Peru, eta Manolito, lora, dituzte. Katua izan zuten, baina ihes egin zien. "Abereak etxean eukitzea endredoa eta lotura da, baina konpentsatu egiten du. Bestetik, etxean bizi izateak pena ematen dit, askatasunik ez dutelako; baina txakurra, esaterako, egune-

*an biru aldiz ateratzen dugu, eta asteburuetan paseo luzeak ematen dizkiogu". Txakurra etxean edukitzea hasieran ez egi da erraza, erakutsi egin behar egi zaio. "Zortzi bat hilabete egin bitartean beharrak egiten eta etxean bizitzen erakutsi egin behar zaio. Gero ez da arazorik izaten. Abereak, gustatu ezean, ezin dira etxean eduki. Ezin dira umeen kapritxo izan, ematen duten lanagatik, berehala asperitzen direlako, bai eurak, bai gurasoak. Bestetik, txakurra etxera ekartzen bada, umeari zaintzeko, garbitzeko zein jan-edianak emateko erantzunkizuna eman behar zaio, txakurra ez da beste jolas bat eta".*

Mari Terenean orain dela 21 urtetik Orinocotik ekarritako loritoa bizi da, Manolito. "100 urte baino gehiago bizi izaten dira. Zein sexutakoa den asmatzea zaila izaten da, baina badirudi gurea arra dela, gizona ez du ikusi nahi izaten eta". Manolito bergarar askok ezagutzen dute. "Behin elementalekoak joko bat egin ahal izateko Manolitoren bila etorri ziren. Ondo tratatuko zutela, eta eraman egin zuten. Beste behin ihes egin zuen: jendea eskolan sartzeko ordua zen, eta ikastolakoak, elementalekoak... denak lororen inguruan zebiltzan. Telefonikako eskilara ere

*atera zuten Manolito harriaratzeko".*

Txistu eta deiadarrak egiteaz gain, berba batzuk esaten ere badaki. "Bi abots desberdin egiten ditu. Askotan zarata ateratzen hasten da, eta barrura sartu behar izaten dugu. Kotxean doanean, errebueltaren bat tokatzen bada, begoak zabalduz planeatu bezala egiten du, eta 'eeeeeh!' esaten du, kontuz joateko esanaz bezala".

### 39 hamster, 12 kanario...

Rachel Olabarriarenean orain bost hamster, lau

arrain, karramarro bat eta txori bat daude. Horretaz gain, txabolan bi zaldi dituzte. "Lehen abere gehiago genuen. Lau katu izan ditugu, oiloa, txakurra... Aldi berean 39 hamster edukita gaude. Umedun zegoen bat ekarri genuen, umeak egiten hasi zen... eta 39 izan genituen. Orain bost geratzen zaizkigu".

Racheli gehien gustatuko litzaiokeena txakurra edo muskerra edukitzea da, "baina gurasoek ez didate lagatzen". Akuarioan arrainekin batera karramarro bat dute. "Ur hotzetako arrainak eta berotakoa nabastuta



"Abereak gustatu ezean, ezin dira etxean eduki. Ez dira jolasak".





Rufina Igarzak dioenez, gazteak dira txoridendan gehien erosten dutenak eta sasoi onena Gabonak dira.

## Rufina Igarza

### ALTUNA TXORIDENDAKOA

■ **Zer saltzen duzue?** Perikitoak, kanarioak, ur hotzetako arrainak, dordokak, landareak, eta abereentzako jana, botikak, etabar. Ezin da esan txoriak arrainak baino gehiago saltzen direnik, ezta aldrebese ere. ■ **Ze prezio dute?** Batanaz beste: arrainek 300 pta., kanario arrek 5.000, emeek 1.500 (kantatzen ez dutelako), perikitoek 2.000, eta dordokek 500 pta. ■ **Eroslerik onenak zeintzuk dira?** Umeentzako eta gazteentzako erosten dira gehien. Lehengoan, esaterako, ama batek 17 eta 19 urteko semeentzat arrainak eroan zituen. ■ **Bada salmentetarako sasoi egokirik?** Gabonetan asko saltzen da. ■ **Jendeak beste abererik eskatzen du?** Txakurrak eta katuak. Horrez gain, sugeak, zapoak, tximinoak, arrak...

ditugu, eta ur berokoak ez ditu besteak jaten. Arrainak beti karramarroarengandik ibesi ibiltzen dira". Txoriak ere ondo ezagutzen ditu Rachelek: "jilgeroak, mistoak... izan ditugu, baina orain perikito bat dugu. Hala ere, niri arrano bat edukitzea gustatuko litzaidake".

Abereren bat hiltzen zaionean Rachelek pena hartzen du, eta lurperatu egiten ditu: "Amak makilekin gurutzea egin, eta zaldiak ditugun lekuan lurperatzen ditugu". Haundi egiten denean Racheli hipikan lan egitea gustatuko litzaiok: "zaldiak garbituz, zainduz... Orain ere azpiak ateratzen, garbitzen, jan edanak ematen... aitarekin ibiltzen naiz".

#### Txakurrek elkar ezin ikusi

Maialen Legorburu Rachelen laguna da; berak ere 11 urte ditu, eta abereak asko maite ditu. 4 arrain, dordoka, txori bat eta bi txakur ditu: Kixkur cockerra, eta Txarli Yorkshire Terrierra. Txakurrak erregalatu egin zizkioten. "Txarlirekin arazoak izan ditugu; oso mehea dagoelako. Albaitariak esan digu solitaria duela, eta tratamenduan dabil". Kixkurrekin txikitan izan zituzten arazoak: "txikia zela kotxeak harrrapatu eta banka apur-


tu zion. Orain ez du arrastorik."

Bi txakurrak etxe berean bizi dira, baina batera ibiltzea ez dute gustoko. "Arraza desberdinekoak etxe batean eduki nahi izanez gero, biak txikitan eta batera ekarri behar direla esaten dute. Guk ez genituen batera ekarri, eta orain gaizki konpontzen dira."

#### Tximinoa, pabo erreala, katagorriak...

Gorka Larrañagari txikia zenean ekarri zioten Txibis tximinoa. Nigeriatik ekarri zuten, eta sekulakoak egiten zituen. "Behin butaneroari hagingka egin zion, eta harrerez gero ez da etorri, orain guk joan behar izaten dugu butanotara. Beste baten El planeta de los simios lasai-lasai ikusten ari zen emakume bati balkoian azaldu zitzaiton. Zelako sustoa hartu zuen! Oso gaiztoa zen, eta tiestoak bota, arraultzak apurtu... zer ez zuen egiten! Bost bat urte egin zituen gurekin. Arratoben benenoa janda hil zitzaigun." Berriz ere edukiko luke, "nabiz eta tximinoa gaiztoa izan".

Etxe inguruan zelai ederra eta zuhaitzak izanik, Gorkak eta, tximinoaz gain, beste abere batzuk ere izan dituzte. "9 bat arata izan ditugu. Akordatzen naiz behin ikastolara eraman nitue-



# JOXAN ARRAINDEGIA

Ibargarai 4, behea ☎ 76 70 29

**Astelehenean, hilak 14, arratsaldeko 7etan inaugurazioa.**





Tximinoaz gain, aratak, txakurra, katagorriak e.a. izan ditu Gorka Larrañagak etxean.

la, eta bat maisu batek zapalduta hil zela. Pabo erreal ar bat eta hiru eme ere edukita gaude. Arrak oso dotoreak dira, luma koloredunekin; emea marroixka izaten da. Emeek egindako arraultzak azeriek jaten zituzten, azkenean emeak ere jan egin zituzten, eta arra kamioiak harripatuta hil zen. Dordoka handiak ere bagenituen, baina desagertu egin zitzaizkigun”.

Gorka animaliangana ikusi orduko arrimatzen da. “Gurera azaltzen diren animaliei jaten ematen diegu, eta gero geratu egiten dira. Katuekin, txakurrekin, ingu-

ruko zubaitzetako katagorriekin... askorekin gertatu zaigu. Txorientzako etxetxoak eginak ditugu, jana lagatzen diegu, eta goizero ibiltzen dira zozoak eta”.

**Zaldia gustoko**

Gorkak dioenez, zaldia edukitzea gustatuko litzaioke, baina orain arte eduki dituen animalietatik aukeratzekotan txakurrarekin geratzen da. “Asko izan ditut, eta egia da, gizakiaren lagunik onena da; lagun egiten dizute. Ezin da konparatu txakurra beste animaliekin. Nik lo ere txakurrarekin egiten dut”.


**Axen Garitano**

**ELURRA TXAKURTEGIKO**

■ **Kalean txakur asko jasotzen duzue?** Nahi baino gehiago. Jasoko ez balira abandonatzen ez dituztelako seinalea izango litzateke. Abuztutik hona, batanaz beste, egunean bat jaso dugu. ■ **Kalean jasotako txakurrak nolakoak izaten dira?** Gehienak arratoi txakurrak eta kruzeak; arrazakoak %5. ■ **Zer egiten duzue txakurrekin?** Hilabetean eduki, eta bila inor ez bada azaltzen, hil egiten dira. ■ **Jendeak badu txakurtegiako txakurrik lortzeko aukerarik?** Bai. Edonor etor daiteke, txakur bat aukeratu, eta etxera eraman dezake. 6.000 pta. kobratzen da, mikrotxipa eta bakuna ordaintzeko. ■ **Osasun aldetik sanoak izaten dira?** Bai. Albaitaria egunero pasatzen da: arkakuxoak kenduta izaten dituzte, desparasitatu egoten dira, eta dagozkion bakunak ematen zaizkie.



Txakurra, gizonaren lagunik onena. Egia omen da.



*Tartufo Jatetxea*

San Juan auzoa, Elgetarako bidea. ☎ 76 35 51

**JATETXEA**

- Eguneko menua.
- karta zerbitzua.
- Gure berezitasuna: Arraina eta okela parrilan.

**TERRAZA**

- Menu ekonomikoak.
- Plater konbinatuak.
  - Bokatak.
  - Oilaskoak.


**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-taberna**

*Eguneroko janariak / Txitxizotzak*  
*Kazolatxoak / Txabierroak*

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



## Erropa erosterako ordutan, moda kontutan hartzen al duzu?



**Jesus Jimenez**

Modari ez diot batere kasorik egiten, ez dut batere jarraitzen. Normalean emazteak ekartzen dizkit probatzeko jantziak.



**Gloria Laskurain**

Ez, ondo geratzen zaidan ala ez bakarrik izaten dut kontutan, horri ematen diot lehentasuna. Normalean Bergaran, Gasteizen edo Donostian erosten dut erropa.




**Glorya Pera**

Ez. Amak erosten dit erropa eta harek ekartzen didana janzen dut, niri berdin zait. Normalean konforme egoten naiz.



**Amaia De Lucas**

Batzutan, modan dagoena gustatzen bazait bai, bestela ez. Normalean lagunduta joaten naiz erropa erostera, Bergaran edo Gasteizen egiten ditu erosketak.



**Alberto Hernandez**

Gustatzen zaidana janzen dut. Normalean Gasteizen erosten dut erropa, hemen nahiko garestia da eta. Nahiago dut lagunduta joatea.



**Igor Urzelai**

Ez, ez diot modari jarraitzen. Bergaran eta Donostian egiten ditut erosketak eta gehienetan amarekin joaten naiz. Nahiago dut erropa klasikoa.

### IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**


San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta,



sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letra, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39



Irizar, 2  
☎ 76 14 95


**JAUJA KIROLAK**

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA





## Subnormal progrea?

**B**adakit ez dela garaia bazterrak nahasten hasteko, baina bukatu berri den udan Euskal Herrian izandako gertaera garrantzitsuenetakoa izanik, ezin alde batera laga. Ez, ez naiz ari euskal presoen egoeraz, Ortega Lararen bahiketaz, Realaren fitxaketaz edo Indurainek galdu duen Tourraz. Beste zerbaitek kezkatu nau beste gai horiek bezain beste edo gehiago. Gertaera horrek laga du agerian herri honetako jende batek oraindik nola pentsatzen duen.

Honezkerok jakingo duzue Irungo eta Hondarribiako alardeak direla lerro hauen aitzakia. Ez dut bi egun horietan gertatutakoaren berri emango, komunikabide guztietan agertu zelako; baina bi egun horiek gure gizartearen oraindik mantentzen diren jarrera sexistak, matxistak eta homofoboak garbi erakutsi zituztela uste dut. Bai Irunen, bai Hondarribian emakumeek eta eurekin zihoztenek kolpeak jaso zituzten, baina beste era bateko "ostikadak" ere bai: "putak", "lesbianak", "emakumeak fregatzera" eta abar. Horrelakoak entzuteak nolako gizartearen bizi garen erakusten dute argi eta garbi. Hauen ustez, gehiengoak erabakitzen badu emakumeek ezin dutela botorik eman, horrela izan behar du, gehiengoak diolako. Herri baten gehiengoak erabakitzen badu ijitoak hil egin behar ditugula, horixe bera egin dezagun, gehiengoak demokratikoki hori erabaki du eta.

Bukatzeko, Hondarribiako alardearen ondoren agertutako paskin batzuk ekarri nahi ditut gogora. Panfleto horietan emakumeak alardean parte hartzearen alde zeuden emakume eta gizon batzuen telefono eta helbideak ematen ziren, eta bide batez "subnormal progrea" deitzen zitzairen. Bai, badakigu alardea dagoen bezala mantentzearen alde dauden guztiak ez direla horrelakoak, baina, hauek, kasualitatez, emakumeen parte hartzearen aurka zeuden.

**Mikel LIZARRALDE**



## Izertia eta bekokia

**"Zeure bekokiko izerdiz irabaziko duzu ogia"** zioen esaera zaharrak. Lana, zigorra izan zena hasieran, eskubidea gero, eta luxu bihurtuko da laster.

Historiaren izaera ziklikoaren ondorioz, ustez gaindituta genuen unera bueltatu gara: agentzia espezializatuak, besteren kontura (irabazi dexenteren truke), arduratzen dira pertsonalaren kontratazioz; esklabotzeko modu berriak agertu dira, "aprendizaia kontratuak" eta halako izenekin; eta "lan finkoa", "soldata estra" edo "langabeziako subsidioa" kontzeptuak historiako liburuetan agertuko dira laster.

Mende bukaera aldeko mundu hau dinamika zentzugabearen erori da, lana dignifikatu eta langileak kanpora botata. Ez dakigu barre edo negar egin injineruak delineanteen lana egiten edo medikuak erizainen lanetan ikustean; azken finean, logika zapalzaile honek bazterrean lagatzen baitu gaitasun gutxiago duen oro.

Gaur eguneko estatu iaikoetan ere, aintzinako mitologiaren lekuan jainkoen "troika" jarri da, lehenengoak baino jainko abstraktoagoena: inflazioa, defizita, interes tipoak. Mende amaiera honen inoren lanaren lepotik bizi den nagi talde bat sortarazi du.

Aldibaterako lana topatzen duten enpresen biblia berrietan honako esaera hauexek ari da nagusitzen: "inoren bekokiko izerdiaz irabaziko duzu ogia".

**Emilio VINUESA**

Angiozar, 37

☎ 76 27 82




**Gaspar**

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A**

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



**GAZTELU  
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

**Aldoka  
Maldoka  
TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA





■ **1961ko bergararrak**

1961n jaiotako bergarrek **bazkaria** izan zuten zapatuan Iraho jatetxean. Eguraldiak ez zuen lagundu baina hala ere primeran pasa zuten garai zaharrak eta gaur egungo

gorabeherak elkarrekin komentatuz. Guztira **17 lagun** bildu ziren bazkarian, baina antolatzaileek uste baino jende gutxiago bildu zuten, deia denbora gutxirekin egin zelako. Hala ere, datorren urtean bazkaria urriko lehen zapatuan izango dela jakin arazi dute.



■ **Luisa Agirrezabalek 100 urte**

**Luisa Agirrezabal** bergararrak **100 urte** bete zituen asteazkenean, urriak 9. Egun guztian zehar telefono deiak eta lagunak bisitak izan zituen Luisak San Pedro kalean duen etxean. Luisa bakarrik bizi da, goizeko 7etan jeiki eta etxeko lanak egiten ditu eta irratia entzutea gustatzen zaio. Osasun aldetik, esan beharrik ez dago, primeran dago. Asteazkenean, bere 100. urtebetetzean, opari ugari jaso zituen Luisak eta hain gustuko duen txanpan kopatxo batekin txin-txin egin zuen. **Victoriano Gallastegi** alkateak eta **Koldo Pereira** zinegotziak plaka oroigarri bat entregatu zioten arratsaldean. Zorionak!!

**FERNANDEZ**



**Oihal pusakak  
Oihalak**

San Antonio, 3 ☎ 76 22 93  
Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22



**Zatoia**  
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

**MUGICA**  
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3 ☎ 76 10 34





■ **Aitor Zabaletari omenaldia**

Aitor Zabaletaren familiak omenaldi-bazkaria eskeini zion bergarar kotxe gidariari Mekolalde jatetxean. Zabaletak bigarren urtez jarraian **Espainiako Mendiko Kotxe Igoeren Txapelketa** irabazi du eta irailaren 29an bere gertukoen zorionak jaso zituen. Hamabost bat lagun izan ziren Mekolalden bazkaltzen eta bertan bazkaltzen ari zen Iñaki Perurena harrijasotzaile-aktoreak txapela jantzi zion Aitorri bazkalostean. Goiko

argazkian Aitor Zabaleta bere familiarekin ikus dezakezue eta behekoan, berriz, Aitor eta **Iñaki**

**Perurena** Florita Mekolalde jatetxeko jabearekin. Igandean Urrakiko Igoeran korrituko du Aitorrek eta hurrengo astean hildako piloto bati Cordoban egingo zaion omenaldian.



**Zertan dihardute ba?**



**Amaia Irizar**

Donostian Enpresaritzza ikasketak burutu zituen 28 urteko bergararra Donostiako Amara auzoan zabaldu berri den Eröski Consumeiko denda arduraduna da. Eroskik duen Consum (*maxiak* eta *hiperrak* baino zertxobait txikiagoak eta batez ere eguneko erosketetara zuzendutakoak) zentzurik haundiena (2.000 m<sup>2</sup>) da Amarako eta asteartean bertan inauguratu zen. Oraingoz, 76 lagun dira plantilan. Enpresaritzza ikasketak burutu zituenetik, Amaiak Eroskin egin du lan, Elorrion, Zarautzen, Azkoitian eta Zornotzako zentrotan.

**Airtel**  
**HAIZETEL**  
 Telefonía mobila  
 Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

**ZUBIETA**  
 elektragintza  
 MOTORREN BOBINAKETA  
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
 Kruz Gallastegi, 2 behea  
 ☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**  
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
 Leihoak, atek, manparak...  
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik  
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



# Karlos Etxaniz

**Karlos Etxaniz (30 urte) aski ezaguna da Bergaran. Saltsa guztietan egoten den horietakoa da Opeleko Ola kontzesionarioko saltzailea. Orain 5 bat urtetik Orfeoiko partaidea da eta zapatuan Bedelkarrek antolatuko duen desfilean hartuko du parte.**

- Erroparik gustukoena?
- Bakeroak eta niki bat.
- Markei garrantzia ematen diezu?
- Bai.
- Gustuko marka bat?
- Levi's.
- Zer ez zenuke sekula jantziko?
- Sonbrero bat.
- Korbata janzteko ohiturarik?
- Gutxitan, laneko asuntoengatik eta ezkontzaren batean.
- Erropa erosterakoan modari jarraitzen diozu?
- Ez dut uste.
- Erropa erostera bakarrik ala lagunduta?
- Nahiago dut norbaitekin joatea.
- Zeinekin?
- Nobixarekin edo lagunen batekin.
- Non erosten duzu erropa?
- Bergaran.
- Ondo janzteko sasoirik



*“Dutxan abesteko ohitura daukat eta Silvio Rodriguezen kantak ditut gustuko. Urtean 80 bat kotxe saltzen ditut. Linea zaintzen ahalegintzen naiz, baina oso zaila da. Claudia Schifferren ondoan desfilatuko nuke gustura”*

onena?

- Udazkena eta udaberria.
- Biharko desfilerako entsaiatu al duzu?
- Momentuz (asteartean) ez.
- Eta etxeko pasiloan?
- Zedozer bai...
- Ilea zenbatero mozten duzu?
- Bi hilabetetik behin.
- Ileapaindegi fijoak daukazu?
- Bai.
- Noren alboan desfilatzea gustatuko litzaizuke?
- Claudia Schiffer.
- Linea zaintzen duzu?
- Nahi bai baina oso zaila da...
- Zenbat pisatzen duzu?
- 85-86 kilo.
- Kirolik egiten duzu?
- Orain gutxi.
- Urtean zenbat kotxe saltzen dituzu?
- 80 bat.
- Errezen saltzen duzun kotxea?
- Opel Astra.
- Kotxerik gustukoena?
- Opel Astra Caravan.
- Eta konpetentziakoa, zein?
- Peugeot 306a.
- Dutxan abesten duzu?
- Bai.
- Nolako kantuak?
- Silvioren edozein.
- Ikusitako azken filmea?
- Phenomenon.
- Gomendagarria?
- Bai.
- Telebistako anuntzio bat?
- Pepsirena, haurrena.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA**  
**Jantzidenda**  
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

**POL-POL**  
**Taberna**  
☎ 76 07 78

**Kizkur**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**Kabia** TABERNA-ERRETEGIA  
Eguneko menua.  
Karta (2.000-3.500 pzta. artean).  
Okela eta arraina parilan (enkarguz).  
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.  
Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08



**ETXEBIZITZA**

**Pisu** berria salgai Donostian. ☎ 76 05 13.

**Pisua** salgai Matxiategin. 87,5 m2. Egoera onean. ☎ 76 31 22.

**Pisua** konpartituko nuke. ☎ 76 30 01.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** salgai Espoloian. ☎ 76 58 14 / 79 83 45.

**Garajea** salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauzez).

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 47 85 (Jesus).

**Pisua** salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

**Donostian** (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20 / 27 18.

**Bilbon** pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu. ☎ 76 03 58/76 57 70.

**Osintxun** buhardilla bat salgai. Bizitzeko egokia. Prezio oso merkea. ☎ 76 15 36.

**Pisua** salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

**Frontoian** pisua salgai. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai Martokuan prezio onean. ☎ 76 59 96.

**Garajea** (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

**DENETARIK**

**Kerosenozko** estufa salgai. ☎ 76 39 75 (gauzez).

**Gimnasioa** (6 mahai mugikorak) salgai. ☎ 76 13 46.

**Saskibaloiko** erropa galdu zait. Urdin argia, 11 zka. ☎ 76 46 90 (Ane).

**Citroen Xantia** (SS-AV) kotxea salgai. 3.000 kilometro. ☎ 76 28 50.

**Leioako** unibertsitatera arratsaldean joateko kotxea behar dut. ☎ 76 50 11.

**Mendiko** bizikletako (XTR) kanbio eta frenu mantentzeak salgai. ☎ 76 52 31.

**Liburuak** eta musika zintak prezio onean salgai. ☎ 907 22 30 22.

**Taberna-jatetxea** alokairuan Olan. ☎ 76 37 80.

**Setter** txakurkumak salgai. Ehiztariak. ☎ 76 34 95.

**Ford Fiesta** kotxea salgai (SS-L). ☎ 76 37 59.

**Urrezko** pultsera galdu dut. ☎ 76 30 00 (sarituko da).

**Taxi-plaza** eskualdatuko nuke. ☎ 76 44 04.

**Gasteizera** egunero autobus joateko jendea behar da. 14:30etan joan, 8etan etorri. ☎ 79 32 58.

**LANA**

**Neska** euskaldun batek pelukera lan egingo luke. Titulua. ☎ 76 47 62.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**Mate**, fisika, kimika eta diedriko klaseak. BBB, UBI, LH. ☎ 76 24 31 (Eneko).

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

**Perkusio** ikastaroa Arratsaten. ☎ 79 80 25 (Iñaki).

**Aleman** diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Erizain** batek arratsaldean lan egingo luke. ☎ 76 54 52 (Jone).

**Majisteritzan** diplomatuak neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

**Unibertsitate** mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

**Astebukaeretan** etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 46 (eguerdiz).

**Neska** euskaldun batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 31 96.



## BERGARA

### Karrozeriak

### Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

## YAZKI

### UME GAZTE

### Neska eta mutil

Irizar, 3  
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8  
☎ 76 54 73

## LAZKANO

### Oinetakoak

Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

## AGIRREBEÑA

### oinetakoak

### arropa denda

### lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29





*“Hurrei egur piskat ematen diegu kalean, eurek petardoak botatzen dizkigutelako”*

*“Lekeition Guinness errekorra hautsi genuen, 25 orduz jarraian hankapaluen gainean egon ondoren”*

**MIKEL IBARZABAL, KUKUMA TALDEKOA**

## **“Kaleko animazioa lantzen dugu batez ere, hitzik gabeko kale antzerkia”**

**Andoni Goiti, Eider Ugarte, Zigor Martinez eta Mikel Ibarzabalek osatzen dute Kukuma hankapalu taldea. Orain dela 11 bat urtetik dihardute lanean eta herrietako jaietan kaleak animatu edota hainbat antzezlanetan eszenografia lanak egiten dituzte.**

**- Nola hasi zineten hankapaluekin ibiltzen?**

- Geure kasa ikasi genuen. Txikitan, karnabalak zetozela eta, zankudo mozorrotzea bururatu zitzaigun. Udaleko kultura batzordekoek ikusi gintuzten eta ideia polita iruditu zitzairen. Diru piskat eman ziguten eta horrela ekin genion.

**- Une honetan zertan diharduzue?**

- Kaleko animazioa lantzen dugu batez ere, hitzik gabeko kale antzerkia edo. Hiruzpalau pertsonaia lantzen ditugu, normalean elkarren artean harremana dutenak, familia bat esate baterako. Orain bi familia ditugu: txerri familia bat, senar-emazteak, ume karro eta guzti, herrietako jaietan barraketan eta horrelako tokietan antzete-



Elgoibarren Kilometroak 96ren inguruan antolatutako jaialdian.

ko eta bestea, lau hankadun mozorroa, kalean hurrei beldurra emateko eta egur piskat banatzeko. Hurrek petardoak bota, hankak sokekin lotu eta horrelakoak egiten dizkigute.

**- Beste era batzuta-ko lanik egin al duzue?**

- Beste anzerki talde batzuentzako egindako enkarguak. Taun-Taunen Makinatu muntaiarako, Miserableak ikuskizuneko eszenografia, Elgoibarko Taupadarentzako goma-espumazko materiala, Karnabaletako sardina, Angiolilloren bideo-kliperako mozorroa... Orain, San Martinen estantpan eszenografiaz ar-

duratuko gara. Bestalde, lagunentzako figura txikiak ere egiten ditugu.

**- Eta hankapaluekin antzerkia egitea ez al zaizue bururatu?**

- Bai, eta horretan buru-belarri ibili gara. “Urrezko sega” haurrentzako ipuinean oinarrituta, gidoia landu, buruz ikasi eta pertsonaiak egin ondoren, ahotsa sartzera-koan eta interpretazio lana egiterakoan, bertan behera laga genuen. Saia-tu gara, baina argiak eta ahotsak ez ditugu menderatzen.

**- Ze material erabiltzen duzue?**

- Goma-espuma batez ere, arina delako, hanka-

paluekin ibiltzeko oso egokia. Valentziako falletako kartoia ere erabiltzen dugu, merkea eta arina delako. Taun-Tauneko Nartxik eta Kuku-biltxokoek erakutsi ziguten goma-espumarekin lan egiten. Gero, jantziak telarekin egiten ditugu, eta mozorroak diseinatzen, plastilina eta bustina erabiltzen ditugu.

**- Toki askotan ibilizarete?**

- Orain dela urte batzuk, uda partean, herri askotatik deitzen ziguten. Bestalde, Kilometroaken inguruan Elgoibarren antolatu ziren kultura jardueretan ere parte hartu genuen. Bestalde, Lleidako herri txiki batean, Tamarite de Literan, karroza desfilea egiten da eta hor ere parte hartu dugu azken hiru urteetan.

**- Zaila al da hankapaluekin ibiltzea?**

- Praktikatuz gero ez. Aizkorrira, Pirinioetara, hondartzara edota Abrain Errekara joan izan gara teknika lantzeko.

**- Guinness errekorra ere lortu omen duzue.**

- Bai, Lekeition hautsi genuen errekorra hankapaluen gainean 25 orduz jarraian egon ondoren.



1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK OPEL/LAM	3	1	6	0
2. BAR CANALEJAS	3	1	6	1
3. AZPEITXI JATETXEA	3	1	4	2
4. ERROTAGAIN	3	1	5	4
5. A ZE FLAXA ETXAGI	3	1	4	3
6. UFALA	1	1	3	3
7. ORTZI	1	1	3	3
8. MONGATXURRA	0	1	3	4
9. OLLAGORRA ARLOTEAK	0	1	4	5
10. JAUJA OH ZEREZOS	0	1	2	4
11. PAGOMENDI	0	1	1	6
12. MADURA INDUSTRIAS GOL	0	1	0	6
13. OGIZUN	0	0	0	0

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	3	1	8	2
2. AGIRREBEÑA	3	1	4	1
3. KAYAK OS JARDINEIROS	3	1	4	1
4. INDARGORRI	3	1	3	1
5. ETXAGI	3	1	3	2
6. LA JUVE	3	1	2	1
7. AUTOBEREZI	0	1	1	2
8. EZINLEIKE	0	1	2	3
9. HALTZARI	0	1	1	3
10. ERI	0	1	1	4
11. AGIÑASPI	0	1	1	4
12. UVE BIKOITZA JAM	0	1	2	8
13. SOROPOTROAK	0	0	0	0

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MOSKIS	6	2	8	3
2. FAC	3	1	5	0
3. PJS	3	1	5	1
4. TXIPIRON	1	1	2	2
5. JAKINA PATXARAN TEAM	1	2	4	8
6. CONSTRUCCIONES BERGARA	0	1	1	5
7. IGANDEKOAK	0	0	0	0
8. NEKROFIKOS	0	0	0	0
9. MRW	0	0	0	0
10. EH BITERRAK	0	0	0	0
11. GUADALEST	0	0	0	0
12. HAHIKARI HOOLIGANS	0	0	0	0
13. ARI ARI	0	0	0	0

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	6	2	15	3
2. PANORAMIX	4	2	4	3
3. OSINTXU	3	1	7	1
4. SLO	3	1	3	1
5. PATA NEGRA	3	1	3	2
6. XURRUPAK	3	1	5	4
7. ARBE KIROLAK	3	1	2	1
8. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	2	5	8
9. ALDOKA MALDOKA	1	2	3	5
10. MATXAKATEGI	0	1	1	2
11. PITTIXAK	0	1	2	3
12. ETENGABE	0	1	1	5
13. AMILOTX	0	2	2	6
14. KOMANDO PIPERRAK	0	2	6	15

## Jokoz kanpo



### Juan Luis Arriola "Piti"

#### HALTZARI

#### ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?

Jokatu dugun lehen partiduan Indargorri taldearen aurka 3 eta 1 galdu dugu, baina tira, hasi besterik ez dugu egin.

#### ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena Bilbao Athletic-en aritutako Doyague jokalaria eta txarrena fisikoki kaskar samar gaudela.

#### KANPORATUA IZAN ZARA INOIZ?

Ez.

#### PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Domeka goizetan ondoen.

#### TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

#### AURRELARI ONENA?

Juan Luis Etxaniz, Jauja OH Zerezos taldekoa.

#### SARTU DUZUEN GOLEADARIK

#### HAUNDIENA?

5 eta 0 egin genuen Uve Bikotza Jam taldearen kontra.

#### ETA JASOTAKOA?

12 eta 1 Jauja OH Zerezosen aurka.

#### ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO?

Bigarren mailan ari gara eta saiklapenaren erdialdean amaitzea da gure helburua.

#### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Valeri Karpin.

#### MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Miguel Indurain.

#### EUSKAL HERRIKOAK?

Miguel Indurain.

#### JATEKO PLATER BAT?

Paella.

#### EMAITZAK

AZPEITXI JATETXEA-JAUJA OH ZEREZOS	4-2
MADURA INDUSTRIAS GOL-BILDURBAREK OPEL/LAM	0-6
UFALA-ORTZI	3-3
ERROTAGAIN-OLLAGORRA ARLOTEAK	5-4
A ZE FLAXA ETXAGI-MONGATXURRA	4-3
BAR CANALEJAS-PAGOMENDI	6-1
ETXAGI-EZINLEIKE	3-2
LA JUVE-AUTOBEREZI	2-1
ARTUSAMAK BERGATRANS-UVE BIKOITZA JAM	8-2
ERI-KAYAK OS JARDINEIROS	1-4
HALTZARI-INDARGORRI	1-3
AGIRREBEÑA JATETXEA-AGIÑASPI	4-1
MOSKIS-JAKINA PATXARAN TEAM	6-2
PJS-CONSTRUCCIONES BERGARA	5-1
MANITOU-KOMANDO PIPERRAK	10-2
AMILOTX-POLIDEPORTIVO TABERNA	1-4
ALDOKA MALDOKA-PANORAMIX	2-2

#### PARTIDUAK

##### Zapatuan barruan

09:00: OSINTXU-AMILOTX • POLIDEPORTIVO TABERNA
10:00: ALDOKA-POLIDEPORTIVO TABERNA • KOMANDO P.
11:00: KOMANDO PIPERRAK-SLO • ALDOKA MALDOKA
18:00: A ZE FLAXA ETXAGI-OLLAGORRA • BAR CANALEJAS
19:00: CANALEJAS-JAUJA OH ZEREZOS • AZF ETXAGI
20:00: SOROPOTROAK-HALTZARI • JAUJA OH ZEREZOS

##### Zapatuan kanpoan

16:00: ARTUSAMAK BERGATRANS-INDARGORRI • XURRUPAK
17:00: ERI-EZINLEIKE • INDARGORRI

##### Domekan barruan

09:00: IGANDEKOAK-TXIPIRON • PJS
10:00: PJS-ARI ARI • MRW
11:00: MRW-JAKINA PATXARAN TEAM • GUADALEST
12:00: GUADALEST-CONST. BERGARA • EH BITERRAK
13:00: EH BITERRAK-NAHIKARI HOOLIGANS • C. BERGARA
16:00: NEKROFIKOS-FAC • PATA NEGRA
17:00: PATA NEGRA-MATXAKATEGI • MANITOU
18:00: MANITOU-PITTIXAK • ARBE KIROLAK
19:00: XURRUPAK-ARBE KIROLAK • PANORAMIX

##### Domekan kanpoan

11:00: PAGOMENDI-MONGATXURRA • BILDURBAREK
12:00: AZPEITXI-BILDURBAREK OPEL/LAM • UFALA
13:00: OGIZUN-UFALA • AZPEITXI JATETXEA
16:00: ERROTAGAIN-ORTZI • KAYAK OS JARDINEIROS
17:00: AGIRREBEÑA-KAYAK OS JARDINEIROS • AUTOBEREZI
18:00: LA JUVE-UVE BIKOITZA • AGIRREBEÑA

#### OHARRA

Joan zen astean, kanpoan jokatu behar ziren partidu batzuk bertan behera laga behar izan ziren, euriak kantxa busti zuen eta ezin izan zen jokatu zorua oso irristakor zegoelako. Asteburu honetan ere suspenditu egingo dira euria egiten badu.



## T XINPARTAK

### Gimnasia

Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeko kide izan nahi duten OHoko lehen mailatik aurrerako neskek, Kultur Etxeko 76 10 36 telefonora deituz eman dezakete izena martitzen eta eta eguenetan 18:30etatik 20:00ak bitartean.

### Lesio larria eskubaloian

Ion De Pedro, BKEko eskubaloitalde nagusiko jokalaria etxean da, 12 egun Guruzetako eritetxean egon ondoren. Portugaleten partidu bat jokatzeko ari zenean, lurrera jausi eta eskumako begiarekin aurkari baten orpoa jo zuen. Begi horretatik ez du ikusten eta eguenean Donostiako oftalmologo batengana joatekoa zen diagnostiko berri bat jasotzeko.

# Antzuola-Bergara futbol derbia Estala zelaian

BKEko bigarren errejonaleko taldeak Antzuolaren aurkako lehen derbi ofiziala jokatu du larunbatean 16:15etatik aurrera. Bi taldeak ondo dabilta, batez ere antzuolarrak, jokatuak 5 partiduetatik 4 irabazi eta bakarra berdindu baitute, eta liderrak dira.

Begararrak nahiko makal hasi ondoren neurria hartu diote mailari eta azken emaitzak oso onak izan dira. Biharko partidurako itxaropentsu agertu da Jabier Iturbe taldeko entrenatzailea: *"taldea oso ondo dabil eta poliki-poliki ekipo itxura hartu du. Antzuolarrak talde ona osatu dute eta errespetoa diegu liderrak direlako. Halere, beti bezala irabaztera iritengo dugu"*.

Antzuolarren entrenatzailea azken urteetan BKEko jokalaria izan den Mikel Larrañaga, "Maki" da. Berak esan digunez




Jabier Iturberen mutilak garaipenaren bila joango dira Antzuolara.

gol gutxiko partidua izango da. *"Bi defentsak indartsuak dira eta gol gutxiko partidua izango da. Lehenengo gola sartzen duenak uste dut irabaziko duela partidua"*.

Begararrek partidurako bi zalantza dituzte eta antzuolarrak hiru.

Bi taldeetako entrenatzaileek partidu garbia

izateko esperantza dute eta lehen derbia izanik jendea Estalara joango dela pentsatzen dute. Partidu ostean, emaitzari begiratu barik, antzuolarrak Olalde elkartearen bergararrak afari batera gonbidatuko dituzte eta Bergarako partiduan gauza bera egingo dute bergararrak.



### Kirol txapelketak

Udaleko kirol zerbitzuak hainbat kirol txapelketa antolatu ditu aurtengo denboraldirako. Urtero antolatzen dituen binakako pala txapelketa eta binakako frontenis txapelketaz gain, tenis eta eskuz binakako txapelketak ere izango dira. Pala txapelketa zapatu arratsaldetan Osintxun jokatu da eta frontenisa toki berean, baina domeka goizetan. Bi txapelketetan

parte hartzeko kirol zerbitzuko bazkideek 2.000 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 4.000. Tenis txapelketa, berriz, asteen zehar Labegaraietan jokatu da eta bergararrek soilik jokatu ahal izango dute. Eskuz binakako txapelketa Zabalotegiko frontoian jokatu da, baina zapatutan ala domeka goizetan jokatu den zehazteke dago oraindik. Txapelketa guztiak urriaren 26an hasiko dira. Urriaren 19ra arte eman daiteke izena.



**KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

- ◆ **Bergara-Orioko**  
Preferente maila.  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Urki "B"**  
2. mailako jubenilak.  
Zapatua. 11:00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Arrasate**  
Lehen mailako infantilak.  
Zapatua. 09:30. Ipintza.

**SASKIBALOA**

- ◆ **Bergara-Intxaurren**  
Senior mutilak.  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
- ◆ **Ganbara BKE-Aloña Mendi**  
Kadete neskek.  
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Urbina-Maltzaga**  
Junior mutilak.  
Domeka. 11:00. Mariaren L.

**PILOTA**

- ◆ **Bergara-Goierri**  
Klubun arteko txapelketa.  
Kadete maila binaka.  
Eguakitza. 22:00.  
Udal Pilotalekua.
- ◆ **Bergara-Boskotarrak**  
Klubun arteko txapelketa.  
Jubenil maila binaka.  
Eguakitza. 22:30.  
Udal Pilotalekua.

**ATLETISMOA**

- ◆ **Behobia txikia**  
Behobia-Donostia lasterketa korrituko duten antxintxikalari bergararrek, Behobia txikia egingo dute urriaren 26an. Agorrosingo igerilekueetatik irten eta Soroluzerainoko joan etorria egingo dute. Ondoren, igerilekueetako tabernan bazkaria izango da. Izen-ematea tabernan bertan.



# Jose I. Muguruza

## Pilotari beteteranoa

**Jose Ignacio Muguruza elosuarra pelotari afizionatua izan da hainbat urtetan. Oraindik ere, beteteranoetan jokatzen jarraitzen du eta lehengo maila erakutsi ez arren, sasotsu dabil.**

**- Urtean zehar zenbat txapelketetan parte hartzen duzu?**

- Zoritzarrez gero eta gutxiagotan. Lehen Elosun, Elorregin, Osintxun, Uberan..., baina orain ez dakit gazteei paso emateko edo, gero eta gutxiago antolatzen dira.

**- Horietatik zein izaten zen garrantzitsuenena?**

- Osintxukoa oso gogorra izaten zen Eibar, Bergara, Elgoibar eta Oñatiko pilotariak joaten baitziren. Azkenengo urteetan Elosukoa ere nahiko gogorra izan da. Gaur egun nagusien torneoak, Elorregin eta Uberan izan ezik, ez dira antolatzen.

**- Beteranoen artean lehia handia daukazue?**

- Frontoi barruan bai, benetan ibiltzen gara. Behin frontoitik irten eta gero oso lagunak gara. Elkarrekin afaldu, musean jokatu eta nahi dena. Azkenengo 20 urteetan eguastenero lau lagun, Lete, Igartua, Osa eta laurok, Uberako frontoira joaten gara jokatzerara. Galtzaileek txikitoak ordaintzen dituzte, baina lehen esan dudan moduan frontoian etsai gogorak gara.

**- Nagusien torneoak berreskuratzeko zer**

**egin beharko litzateke?**

- Bergaran pilotan jokatzekeo afizioa badago eta aurten Pilota Topaketen barruan antolatutako txapelketan jende askok jokatu zuen. Halere, beteteranoen txapelketak berreskuratzeko ez dakit... Elosun beteteranoen lehia-keta urtero antolatzen genuen, baina aurten mutikoen txapelketa antolatu dugu eta garrantzitsuago dela uste dut hor baitago pilotaren etorkizuna.

**- Zela ikusten duzu pilotaren egoera Bergaran?**

- Bergaran mutiko asko dago pilotan egiten duena, domeka arratsalde

normal baten Elosura joaten bazara, mutiko asko ikusiko dituzu pilotan.

**- Haurrei pilota erakusten ere ibiltzen zara, ezta?**

- Bai, Jabier Zabaleta eta biok 10 urtetik 14 urtera bitarteko haurrekin aritzen gara Zabalotegiko frontoian. 10 urtera arte Iñarrarekin aritzen dira eta guk laga ondoren Reyes Azkoitiarekin aritzen dira.

**- Afizionatuetan Zezeagarekin bikote egin omen zenuen.**

- Bai, 26 urte nituenean Zezeagarekin Gipuzkoako txapelkunorde geratu nintzen.



"Gaztetan Gipuzkoako txapelkunorde geratu nintzen Zezeagarekin".

**"Gazteen txapelketak antolatu behar dira, hor dago etorkizuna"**



# Moda desfilea Ariznoa diskotekan

**M**oda desfileak ez dira gaurko kontua Bergaran. Lehen ere herriko dendariak beren modeloak erakusteko desfileak antolatzen zituzten eta horren lekuko aste honetako bi argazkiak dituzue.

Argazkiak orain 22 bat urtekoak dira eta Ariznoa diskotekan (lehenago *Potzuan*) egindako desfilean ateratakoak dira. Herriko hainbat dendak orduko *tendentziak* erakusteko desfilea antolatu zuten eta modelo gaztetxoak izan ziren *pasarelan*. Jaunartzerako txaketa dotoreak, neska zein mutikoendako jantzi konjuntatuak, koadrozko alkondarak, nikiak... udaberriari zer jantzi ideiak ematen ziren eta aretoa toperaino bete zen orduan. Ea zapatuan Jam aretoan beste horrenbeste gertatzen den...

Argazkietan agertzen diren modeloak hauek dira, ezkerretik eskumara:

**Goiko argazkian:** Patri Bideluze, Eva Bideluze, Tere Garamendi, Igor Ugarte eta Mari Puy Garcia (ilarako azkena). Ezkerraldean txaloka ari den neska Iruñe Payros da.

**Beheko argazkian:** Agurne Barruso, Edu Mendibil, Xabier Garamendi eta Iulen Agirrebeña. Ezkerraldean, eserita, asteazkenean, urriaren 9an, 100 urte bete zituen Luisa Agirrezabal ageri da. Gaur egun bezain argi orduan.



Argazkiak: Marian Lizarralde (Yazki jantzidenda)

Industria  
hornikuntzak

**U**  
UNIFE

Industriaren  
alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



**umelaga**  
JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**



# Urrian eta azaroan

## JUBILATU-PENTSIONISTENTZAKO KANPAINA

Opticos Asociados-ek **BETAURREKOAK** preziorik onenean eskaintzen dizkizu.

Monturak eta graduatutako lenteak

**6.950** pta. bakarrik

Monturak eta lente bifokalak

**11.950** pta. bakarrik

Eta **LENTE PROGRESIBOAK** nahi izanez gero, kontsultatu gure super-prezioak.

*IKUSMENA BERRAZTERTU beharrea bazea, ORAINXE DUZU AUKERA: OPTICOS ASOCIADOSek sakon aztertuko dizkizu begiak, begien tentsioa barne, zure beharretara egokituta. ETOR ZAITEZ, ikusmena aztertuko dizugu.*



ZAINDU ZURE BEGIAK

# P. Manso optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA ☎ 76 27 86



OPTICOS ASOCIADOS ZURE IKUSMENA HOBETZEKO LANEAN



**Sofa**  
leku

**centro**  
**hogar**  
**MUEBLES**

**a, eme... interiores**



Estilo  
guztietako altzariak  
aurkituko dituzu gure  
dendetan.

Zatoz, eta zuk  
aukeratu!!



**grupo**



**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 - ARRASATE - Tel. 79 15 03

**centro hogar muebles**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92

**sofa leku**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92